

Ikapp. Jarraipeneko ikastaroa

2014/05/14

Ordutegia:

Gaiak	Ordutegia
Oinarrizko kontzeptuen azalpen orokorra: <ul style="list-style-type: none">• Erregioak• Blokeak• Edukiak• Eremuak• Bistak• Panelak• Moduluak	9:00 - 9:15
Menuak <ul style="list-style-type: none">• Sinpleak• Eleanitzak• Desplegableak	9:15 - 10:00
Irudi eta bideo bildumak eduki motekin lanean.	10:00 - 10:30
Atsedena	10:30 - 11:00
Bistak <ul style="list-style-type: none">• Aldez aurretik sorturik daudenen errebasoa• Berriak sortu	11:00 - 11:45
Momentuan erabakitako gaia. Aukerak: <ul style="list-style-type: none">• Testu editorea• Baliabideen kudeaketa• Buletinak• Panelak• CSS bidezko itxura aldaketak	11:45 - 12:45
Galde-erantzunak	12:45 - 13:00

1- Oinarrizko kontzeptuen azalpen orokorra:

Erregioak: Webgune batek dituen oinarrizko eremuak dira. **Regioen** kokapena eta tamaina **themean** definitzen da baino **css** bidez aldaketa txikiak egiteko aukera dago. Ez dago erregio berriak sortzeko aukerarik.

Blokeak: Regio desberdinetan kokatu daitezkeen eduki kaxak dira.

Edukiak (Node): Drupal 7ko eduki entitate bakoitza **nodo** (node) bezala ezagutzen da. Eduki mota desberdinak egon daitezkeen arren, eduki unitate bakoitza nodo bat izango da: artikulua, argazki bilduma, oinarrizko orri... eta bakoitzak bere identifikadore (id) propioa edukiko du.

Eremuak (Field): Nodo bakoitzak **eremu** (field) desberdinak izango ditu. Balio lehenetsiz denek izenburua eta gorputza izango dute. Eremu hauek mota desberdinetakoak izan daitezke, testuak, zenbakiak, datak, irudiak, fitxategiak... Nodo baten eremuak definituz sortzen dira eduki mota desberdinak.

Bistak: Edukiak filtratu eta hauetatik erakutsi nahi dena zehazteko balio dute. Filtraziorako edozein eduki mota edo eremu erabil daiteke. Eduki bera modu askotara erakutsi daiteke; formatu gabe, zerrendatua, taula itxurarekin, diapositiba formatuan... Informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/65>

Panelak: Panelek edukia antolatzeko balio dute. Webgune orokorrean, regioekin egiten den antzera, panelei esker, orri batean eduki desberdinak antolatzeko espazioak kudeatu daitezke. Informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/66>

Moduluak: Drupalen funtzionalitateak definitzen dituzten atalak dira. Hiru modulu mota daude:

- Core (Nukleokoak): Drupal-en oinarrizko instalazioarekin datozen funtzionalitateak dira.
- Contributed (Partekatuak): GPL lizentziarekin, Drupal komunitateak sortu eta partekaturiko moduluak dira.
- Custom (Pertsonalizatuak): Ikastolen behar espezifikoetara sorturiko modulu pertsonalizatuak dira.

Theme: Webgunearen oinarrizko itxura definitzen du. Bertan erregioak, koloreak, testu iturriak eta abar definitzen dira, oinarrizko html eta css batzuren bitartez. Ikapp aplikazioak Ikapp izeneko theme konfiguragarria dakar.

Drupal komunitateak theme desberdinak denon eskura jartzen dituen arren, ez dugu Ikapp ez den beste theme bat instalatzea gomendatzen. Hau egin ezker, aplikazioa funtzionalitate batzuk theme berrian definituak ez dauden regioetan kokatzen saiatuko da eta erregio horiek existitzen ez badira, errorea emango du. Dena den, norbaitek hori egin nahiko balu, FTP kontu bat eskatu beharko luke. Gaur egun mugikorrenzako itxura eskaintzen ez dugun arren, horretan lanean ari gara "responsive design" teknika erabiliaz.

Informazio gehiago: <http://www.ikapp.info/node/42>

2- Menuak

Edukietara modu antolatu batean iristeko baliogarria diren elementuak dira. Menu bat sortzen dugun bakoitzean, automatikoki menuaren bloke bat sortuko da, menua nahi dugun tokian jarri ahal izateko.

Aurretik sorturiko menu guztiak ikusteko **administradorearen menutik egitura -> menuak** aukeratu.

Bertatik hau egiteko aukera egongo da:

- Menu baten estekak kudeatzeko **Estekak zerrendatu** erabili.
- Menuaren ezarpen nagusietarako **editatu menua** sakatu.
- Menuari esteka bat gehitzeko **Esteka gehitu** botoia erabili.
- Menu berria sortzeko **+ Gehitu menua** klikatu

Hizkuntzari dagokionez hiru menu mota daude:

- **Ez dago itzulpen aukerarik menu elementuak elementurako. menua bakarrik itzuli daiteke:** Menua ezingo da itzuli, bere izena bakarrik.
- **Itzuli eta lokalizatu. Hizkuntza zehatza duen Menu elementuak itzuli daiteke. Hizkuntza zehaztuta ez daukan Menu elementuak itzuli behar da:** Menuko elementuak hizkuntza desberdinetan itzultzeko aukera egongo da. Elementu bat itzultzen ez bada, jatorrizko hizkuntzan ikusiko da.
- **Hizkuntza finkoa. Menu elementuak hizkuntza zehatza dauka eta hizkuntza horretako orrietan erakutsiko da bakarrik:** Menuko elementuak hizkuntza desberdinetan itzultzeko aukera egongo da. Elementu bat itzultzen ez bada, ez da ikusiko.

Hizkuntz bakarreko webguneentzat lehen aukera hartzea gomendatzen dugu, baino webguneak hizkuntza anitzak baditu bigarrena.

Gure webguneak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen badu, menuko elementuak itzuli egin beharko ditugu. Lehenengo, menuko elementu guztiak hizkuntza batean sortuko ditugu. Kontuan hartu, elementu bakoitza sortzean, hizkuntza zehaztu beharko dugula eta balio lehenetsiz hizkuntza neutroa markatua dagoela. Ondoren banan bana elementuak itzuliko ditugu. Horretarako menuko zerrendak ikusteko pantailan sartuko gara (**list links**). Esteka bakoitzaren eskuin aldean, **itzuli** dioen testu bat ikusiko dugu. Bertan klikatuz, esteka hizkuntza aktiboetara itzultzeko aukerak agertuko dira.

Menuen bigarren mailako elementuak monu dinamikoan webgunean ikusteko superfish izeneko modulu bat erabiliko dugu.

Hau dira eman beharreko pausuak:

- Administrarian menuko **Egitura-> blokeak** atalean sartu.
- “**Superfish x**” izeneko blokea bilatu eta konfiguratu sakatu.
- **Menu gurasoa** delakoan, dinamikoki erakutsi nahi dugun menuaren izena jarri behar dugu.
- Beste eremuak erabiliz eman nahi zaion itxura konfiguratu.
- **Eremuaren ezarpenak** atalean, superfish blokea zein erregiotan jarri nahi dugun adierazi behar da, hau da, menu dinamikoa agertu behar den tokia aukeratu.
- **Gorde blokea**.
- Bi menuak batera ager ez daitezzen, menua originala, **-bat ere ez-** erregioan jarri.
- **Blokeak gorde**

Menuen inguruko informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/57>

ARIKETA:

- Honako elementuak dituen menua sortu:
 - Ikastola (Hizkuntza guztietan berdin ikusiko da)
 - Etapak (Stages, Etapas)
 - Haur Hezkuntza (Preschool, Educación infantil)
 - Lehen Hezkuntza (Primary school, Educación Primaria)
 - Zerbitzuak (Services, Servicios)
- Nahi duzun tokian kokatu.
- Bigarren mailako elementuak modu dinamikoan ikusgai jarri.

3- Irudi eta bideo bildumak

Irudi bildumak:

Irudi bilduma bat sortzea oso erraza da. Hauek dira eman beharreko pausuak:

- **Edukia gehitu**
- **Irudi bilduma** eduki mota aukeratu.
- Eremuak bete.
 - Bildumaren azala eta bildumako beste irudi guztiak bi eremu desberdinetan daude
- **Gorde**

Bilduma guztiak ikusteko aurretik sorturik dagoen bista bat esistitzen da: **/image-gallery**

Bideo Bildumak:

Bideo bildumak oso antzekoak dira baino ez berdinak. Bideoak duten pisua kontuan harturik, hauek interneteko zerbitzuetan kokatzea gomendatzen dugu **Youtube** eta **Vimeo** ezagunenak izanik. Zerbitzu hauetako bideoak gure webgunean modu erraz eta azkar batean erakuts ditzakegu, bertan egongo balira bezala. Hauek dira eman beharreko pausuak:

- **Edukia gehitu**
- **Videos** eduki mota aukeratu.
- Eremuak bete
 - **Bideoaren URL-a** dioen tokian, **Youtube** edo **Vimeoko** videoaren URL helbidea jarri behar da, hau da, nabigatzailean agertzen dena.
 - Bideo bilduma bat denez, bideo bat baino gehiago jartzeko aukera dago. Horretarako **Gehitu elementu berria** aukeratu behar da. Lehen bideoa bildumako portada izango da.
- **Gorde**

Bideo bilduma guztiak ikusteko aurretik sorturik dagoen bista bat esistitzen da: **/video-gallery**

ARIKETA:

- Argazki bilduma bat sortu.
- Bideo bilduma bat sortu.

4- Bistak

Edukiak filtratu eta hauetatik erakutsi nahi dena zehazteko balio dute. Filtraziorako edozein eduki mota edo eremu erabil daiteke. Eduki bera modu askotara erakutsi daiteke; formaturik gabe, zerrendatua, taula itxurarekin, diapositiba formatuan... Informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/65>

Ikapp instalazio huts batean balio lehenetsiz instalaturik etortzen diren bistak oso erabilgarriak izan daitezke. Hauei esker, fitxategiak modu ordenatu batean ikusi ahal izango ditugu, edo albisteak, irudi bildumak...

Aurretik sortuta dauden bista guztiak ikusteko, administradorearen menuan **egitura->bistak** aukeratu. Bertatik edozein bista kudeatzeko bista bikoitzari dagokion **editatu** botoia sakatu.

Instalaturik dauden bista guztien inguruko informazioa eskuratzeko ikus honako webgunea: <http://www.ikapp.info/node/128>

The screenshot shows the 'Agenda (Edukia)' configuration interface. At the top, there are navigation links: 'Hasiera » Kudeaketa » Egitura » Bistak'. Below this, a message says 'Modify the display(s) of your view below or add new displays.' The main section is titled 'Bistaratzek' and contains several tabs: 'Month', 'Week', 'Day', 'Year', 'Block', 'Upcoming', and '+ Gehitu'. A dropdown menu on the right shows 'editatu bista izena/deskribapena'. Under 'Month details', there is a dropdown for 'Erakusteko izena: Month' and another for 'Month bista'. The configuration is organized into several sections:

- IZENBURUA**: Izenburua: [Agenda](#)
- FORMATUA**: Formatua: [Egutegia](#) | [Ezarpenak](#)
Erakutsi: [Egutegi entitateak](#) | [Ezarpenak](#)
- EREMUAK**: [Gehitu](#)
Edukia: [Izenburua](#)
Edukia: [Date](#)
Edukia: [Event type](#)
Edukia: [Tags](#)
- FILTRATZE IRIZPIDEA**: [Gehitu](#)
Edukia: [Argitaratua \(Bai\)](#)
Edukia: [Hizkuntza \(hauen artean Current user's language, ...\)](#)
- ORDENATZE IRIZPIDEA**: [Gehitu](#)
Edukia: [Date - hasteko data \(gorantz\)](#)
- ORRI EZARPENAK**: Bide-izena: [/agenda/month](#)
Menua: [Pestaña: Month](#) | [Guraso menu elementua](#)
Atzipena: [Baimena](#) | [Bistaratu argitaratutako edukiak.](#)
- GOIBURUA**: [Gehitu](#)
Orokorrak: [Bistaratzeko eremua](#)
- ORRI-OINA**: [Gehitu](#)
- ORRIKATZEA**: Use pager: [Orrialdeak dataren arabera](#) | Position: [top](#), format: [clean](#).
More link: [Ez](#)

There is also a link for 'Aurreratua' (Advanced).

Bista bakoitzaren edizio eremutik, hauek dira bistekin egiten diren eragiketa simple ohikoenak:

- Bistaren izena aldatu:
 - **Izenburua** barruan, **Izenburua** aldagaia aukeratu eta izena aldatu.
- Bistaren URL helbidea aldatu.
 - **Orri ezarpenak** barruan, **bide-izena**-an dagoen testuan klik egin eta nahi duzun helbidea jarri.
- Formatu aldatu:
 - Eduki berdina formatu desberdinetan erakutsi daiteke. Egutegiko ebentuek, egutegia formatuan erakutsi egiten dira normalean. Baina artikuluek, formaturik gabe, taula baten barruan, diapositiba moduan... erakutsi daitezke. Hau aldatzeko, formatua atal barruko formatua editatu.
- Eremuak:
 - Bisten azalpen orokorran jartzen duen bezala, bista bat eduki konkretu baten eremu jakin batzuk erakusteko balio dezake. Eremu hoiek hemen kudeatzen dira.

- **Eremuak** barruan, **Gehitu** botoiari esker, eremu berriak jar daitezke edo daudenak berrordenatu (Honetarako Gehitu ondoan agertzen den gezia erabili).
- Eremu mota bakoitzaren arabera, aukera gehiago agertuko dira.
- Filtratze irizpideak.
 - Erakutsi nahi den edukia filtratzeko balio dute.
 - Filtrazioak argitaratua dagoen edo ez egin daitezke, baina baita hizkuntzaren arabera, eremu batek duen balioaren arabera, taxonomiaren arabera...
- Ordenatze irizpideak:
 - Erakusten dena edozein eremutan oinarrituz ordenatu daiteke.
 - Eremu bat baino gehiago ere erabil daiteke.
- Goiburua - Orri Oina:
 - Nahi izanezgero bista baten gainean, edo azpian, elementuak jar daitezke. Elementu hauek beste eduki batzuk, bista batzuk edo testu librea izan daitezke.
 - Goiburu eta oineko elementuak gehitzeko dagokion tokian **Gehitu** aukeratu eta pausuak jarraitu.
- Orrikatzea
 - Honi esker bista batean zenbat elementu erakutsi nahi diren zehaztu daiteke.
 - Pager bat erabili nahi bada, bertatik konfiguratzen da.

Bista batek bistaratzeko bat baino gehiago izan dezake. Bistaratzekoak, eduki berdina ñabardura batzuekin erakusteko balio dute. Egutegiaren adibidean, eduki berdina erakusten da bistaratzeko guztietan, baina batzutan urteko egutegi baten gainean, hilekoan, asterokoan edo egunekoan.

Bistaratzekoak, orriak, rss jarioak, blokeak etabar sortzeko ere balio dezakete.

Bisten inguruko informazio gehiagorako ikstu www.ikapp.info webgunean dagoen informazioa: <http://www.ikapp.info/node/65>

ARIKETAK

Lehen Ariketa:

- Argazki bildumaren helbidea eta izena aldatu: Webgunea/argazkiak ataleko izenburua Argazkiak izanik.
- Bideo bildumaren helbidea eta izena aldatu: Webgunea/bideoak ataleko izenburua Bideoak izan dadila.

Bigarren Ariketa:

- Igotako azken 5 fitxategiak erakusten dituen bloke bat sortu.
- Blokeak fitxategi bakoitzaren izenburua eta data erakutsiko du.
- Bistak taula formatu izan behar du eta izena zein dataren arabera ordenagarria izango da.

- Ikapp webgune barruko edukiak estekatu nahi ditugunean, protokoloan other aukeratuko dugu eta helbideren aliasa / ikurraren ondoren jarriko dugu. Adibidez:

Baliabideen kudeketa:

Ikapp-ek ikastolako baliabideak kudeatzeko aukerak ematen ditu, bertatik erabiltzaile bakoitzak baliabideak erreserbatzeko aukera izan dezan. Horretarako honako pausuak eman behar dira:

- Inbentarioa osatu:
 - Administradorearen menuan dagoen **Manage Equipment** aukertau.
 - **Current Inventory** ataletik, ikastolako baliabide guztiak sartu.
- Baimen egokiak eman:
 - Administradorearen menuan dagoen **Manage Equipment** aukertau.
 - **Baimenak** ataletik, erabiltzaile rol bakoitzari dagokizkion baimenak eman.
 - Kasu gehienetan balio lehentsiz datozen baimenak balio dezaketela pentsatzen dugu.

Amaitzeko, baliabideen erreserbak egiteko bi modu orokor daude:

- Edukia gehitu ataletik, beste edozein eduki motaren antzera.
- Erreserben egutegitik: **/ikapp_reservation/month**

Edozein erreserba egiterakoan, dena ongi joan bada, erreserbatzaileak mezu bat jasoko du bere posta elektornikoan.

Erreserba guztiak modu antolatuan ikusteko modurik egokiena bere egutegia erabiltzea da. Gainera, zenbait filtro aplikatzeko aukera ematen du. **/ikapp_reservation/month**

Buletinak

Buletinak harpidetuta dauden erabiltzaileei informazioa haien postara zuzenean bidaltzeko balio dute. Buletinak sortzeko bi modu daude:

- Eduki mota askok honako eremua dute: **Hurrengo buletin bidali**. Eduki hauek sortu edo editatzean Hurrengo buletina bidali checkbox-a aukeratzen badugu, tokatzen den momentuan sortuko den buletin, eduki hau ere gehituko da.
- **Edukia gehitu** ataletik zuzenean buletinak sortu ditzakegu.

Buletinak, dagokien momentuan automatikoki bidaliko dira. Hau kudeatzeko konfigurazio atalean dagoen Cron settings atala erabili behar da.

Buletinen inguruko informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/68>

Panelak

Panelak edukia antolatzeko balio dute. Webgune orokorrean, regioekin egiten den antzera, panelak esker, orri batean eduki desberdinak antolatzeko espazioak kudeatu daitezke. Bistekin gertatzen den bezala, aurretik instalatuta dauden modulu batzuk panelak dituzte.

Panel berriak sortu edo daudenak ikusteko administrariaren menuan, **Egitura** klikatu eta **Panelak** aukeratu.

Atariko panela kudeatzeko toki berdineran joan gaitzkeen arren, gehienetan nahikoa izango da panelaren apian agertzen diren bi aukerekin:

- **Orria pertsonalizatu**: Panelean agertzen den edukia aldatzeko. (Bistak, blokeak, eduki konketuak, momentuko edukiak, widget-ak...)
- **Egitura aldatu**: Panelaren egitura aldatzeko (Zutabe 1, 2 edo 3)

Panelen inguruko informazio gehiagorako: <http://www.ikapp.info/node/66>

CSS bidezko itxura aldaketak

Webguneko itxura aldatzeko administrariaren menuan topatu dezakegun Itxura atala dagoen arren, atal honek muga asko ditu. Aldaketa oso espezifikoak, konplexu edo garrantzitsuak egin ahal izateko css_injector modulua gehitu dugu. Modulu honi esker webguneko css arau guztiak kudeatzeko aukera dago.

Konfigurazio atalean sartu eta CSS injector aukeratuta, sortuta dauden arau guztiak ikusteko aukera izango dugu. Arau berri bat sortu nahi badugu toki berdinetik egin behar da.

Moduluak CSS kodea editatzeko erraztasun handiak ematen ditu eskaintzen duen kolore sistemari esker. Gainera, nahi bada, css arau bat orri konkretu batzuetan bakarrik aplikatzeko aukera dago.

CSS-en erabilera aurreratu batentzat HTML eta diseinu ezagutza altuak izatea gomendatzen dugu. Dena den, hemen oinarritzko zenbait kontzeptu azalduko dira.

Hona oinarritzko HTML kode bat:

```
<html>
  <body>
    <div id="kaxa">
      <h1>Kaxaren izenburua</h1>
      <div class="azpikaxa">
        <p>Azpikaxa bateko parrafoa</p>
      </div>
      <div id="azpikaxa2" class="azpikaxa">
        <p>Bigarren azpikaxa bateko beste parrafo bat</p>
      </div>
      <p>Zerrenda bat:</p>
      <ul>
        <li>Bat</li>
        <li>Bi</li>
        <li>hiru</li>
        <li>Lau</li>
      </ul>
    </div>
  </body>
</html>
```

Ongi begiratzen badugu hiru HTML etiketa mota daudela ikusiko ditugu:

- Atributorik ez dutenak: <html>, <body>, <p>, ...
- Identifikadorearen atributua dutenak: <div id="kaxa"> eta <div id="azpikaxa2" class="azpikaxa">
- Klasea atributua dutenak: <div class="azpikaxa"> eta <div id="azpikaxa2" class="azpikaxa">

Atributorik ez duten elementuak HTML etiketa arruntak dira eta css bidez hauetan eragin nahi bada honakoa jarri behar da adibidez:

```
body{
  /* body barruan dagoenari zerbait egiteko kodea hemen jarri behar da*/
  font-size: 25px; /* Kontrakorik esaten ez bada, webguneko testuak 25 pixeleko altuera izango du*/
}
```

Identifikadorea atributua duten elementu guztiek identifikadore unikoa izan behar dute. Elementu hauen itxura aldatzeko # erabiltzen da. Beraz kaxa identifikadorea duen elementua aldatzeko honakoa jar daiteke:

```
#kaxa{
  background-color: red; /* Honi esker kaxa barruan dagoen guztiak fondo gorri bat izango du*/
}
```

Klasea atributua duten elementu guztiak batera kudeatu daitezke, horregatik klase berbera duten elementu desberdinak topatzea izango litzateke arruntena. Elementu guzti hauek erreferentzitzeko puntuaren ikurra (.) erabiltzen da. Honela, azpikaxa guztiak zabalera berdina finkatu nahiko bagenu honakoa egin genezake:

```
.azpikaxa{
width: 300px;
}
```

CSS-en inguruko informazio gehiagorako: <http://www.w3schools.com/css/>

Baino nola jakin dezakegu Ikapp instalazio batean HTML kodea nolakoa den eta zein identifikadore erabili behar dugun CSS-a editatzen dugunean? Google Chrome web nabigatzaileak garatzaileentzako oso lagungarria den erraminta bat dauka. Firefox-ek badu horrelako bat, baino oso sinplea da. Firefox-en Chromek dituen funtzionalidade guztiak nahi baditugu firebug izeneko plugin bat instalatu dezakegu: <https://addons.mozilla.org/es/firefox/addon/firebug/>

Edozein kasutan, F12 tekla sakatzuz, nabigatzailearen beheko partean webgunea aztertzeko leiho berri bat agertuko da. Elementu ikuskatzailearekin web orriko toki bat klikatzean, bere HTML kodea erakutsiko digu. Gainera, beheko eskuin partean CSS-a zuzenean webgunean frogatzeko aukera izango dugu.

The screenshot shows a web browser window with the developer tools open. The page title is "Ikastolak" and the main content is a large "Ikastolak" logo. The developer tools are open, showing the HTML structure on the left and the CSS styles on the right. The CSS panel shows the "padding-top" property for various elements, such as "padding-top: 85px;" for the body and "padding-top: 5.3em;" for the toolbar-drawer.